



HEZKUNTZA PROIEKTUA

2019ko maiatzean Kooperatibisten Batzar Orokorrean onetsia



KIRIKIÑO IKASTOLA
www.kirikino.eus

94-459 81 00
Faxa: 94-459 82 00
Gabriel Aresti, 22 - 48004 BILBO
Zuhatsu, 1 - 48004 BILBO
kiriki@ikastola.eus



“ Bilboko Ikastola ”

aurkibidea



	Sarrera	05
	1. Ikastolaren testuinguruaren azterketa	06
	1.1. Ikastolaren testuingurua eta ibilbidea.	06
	1.2. Hezkuntza-beharren azterketa, ikasleen ikaskuntza-emaizetan oinarriturik.	08
	1.3. Ikastolaren hezkuntza-praktika orokorra eta antolakuntza.	08
	2. Printzipioak, balioak eta nortasun-ezaugarriak	09
	3. Helburuak eta lehentasunak	12
	3.1. Helburuak	12
	3.2. Lehentasunak	13
	4. Curriculumaren eta antolamenduaren esparruetako aukerak	13
	4.1. Curriculumaren esparrua	13
	4.1.1. Metodologia	13
	4.1.2. Ebaluazioa	16
	4.1.3. Hezkuntza-eskaintza	17
	4.1.4. Aniztasunari erantzuna	17
	4.1.5. Orientazioa eta tutoretza	18
	4.1.6. Hizkuntzen erabilera eta tratamendua	18
	4.1.7. Prestakuntza eta berrikuntza	21
	4.2. Antolamenduaren esparrua	21
	4.2.1. Ikastolaren antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa	21
	4.2.2. Parte hartzeko ereduak	21
	4.2.3. Elkarbizitza	22
	5. Iraunaldia	23

sarrera

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) ikastolaren erabaki eta proiektu handiak egituratzen, koherentziaz betetzen eta bideratzen dituen dokumentua da. Hezkuntza-komunitateak bere hezkuntza-aukera adierazten du bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-araudian aitortua duen berezko autonomiaz baliatuz egina.

Ondorioz, IHP proposamen integrala eta globala da, eta, ikastolaren ezaugarrien azterketa kontuan hartuta, bere nortasun-ezaugarriak, balioak, printzipioak eta helburuak identifikatzen ditu, eta horiek nola lortu adierazten du.

IHPk hezkuntza-asmo argia du, komunitateak hezi nahi duen pertsonarekiko duen aukera eta hori lortzeko dituen baliabideak adierazten baititu. Ikasleei eskaini behar zaien hezkuntza ekitatibo eta kalitatezkoarekiko konpromisoa erakusten du, gizartearen bizitzeko beharrezkoak diren gaitasunak eskura ditzaten eta, horiekin batera, eskola-arrakasta lor dezaten.

Era berean, IHP familien, ikasleen eta ikastolan lan egiten duten profesionalen arteko topagunea da. Gune horretan, eragile bakoitzak hezkuntzari buruzko bere ikuspegia ematen du, ikastola kokatzen den testuinguruaren interpretazioa egiten du eta, denen artean, hezkuntza-ekintzak oinarri izango dituen konpromisoak adosten ditu.

Hauek dira, besteak beste, Kirikiño ikastolaren hezkuntza-proiektua elikatzen duten iturriak eta erregulatzen duten arauak:

- Kirikiño ikastola kooperatibaren estatutuak.
- Kirikiño ikastolaren hezkuntza-proiektua (2009).
- 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa (46. artikuluan).
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (121. artikuluan).

- HEZIBERRI 2020. Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa (Eusko Jaurlaritza, 2014).
- Hezkuntza-etapa bakoitzeko curriculumak ezartzen dituzten dekretuak: 237/2015, 236/2015 eta 127/2016.
- Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen Ikastola Eredua. Hezkuntza-markoa.
- Kirikiño ikastolaren hausnarketa estrategikoa (2017).

IHP oinarritzko eta funtsezko dokumentu instituzionala da, hezkuntza-komunitateak bere egiten dituen nortasun-ezaugarriak definitzen dituena eta kanporantz eman nahi duen irudia azaltzen duena.

Agiriak ikastolaren hezkuntza proiektua garatzen duten dokumentuak orientatzeko oinarritzko irizpideak jasotzen ditu, bereziki, honako hauek:

- Curriculumaren esparruan, ikastolaren curriculum proiektua (ICP).
- Antolakuntzaren esparruan, Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA).

Era berean, hezkuntza-jarduera eta hura garatzeko zehaztuko diren planak eta proiektuak hezkuntza proiektuarekin lerrokatuta eta harekin koherentzian gauzatuko dira.

Besteak beste:

- Hizkuntza-proiektua
- Aniztasunari erantzuteko plana
- Tutoretza-plana
- Elkarbizitza-plana
- Hezkidetzarako eta genero-indarkeriari aurre egiteko plana
- Prestakuntza-plana
- Orientazio-plana
- Eskolaz kanpoko jardueren proiektua
- Ikastolako zerbitzuak
- Eta abar.



1. IKASTOLAREN TESTUINGURUAREN AZTERKETA

1.1. IKASTOLAREN TESTUINGURUA ETA IBILBIDEA.

Kirikiño ikastola onura publikoko eta irabazi-asmorik gabeko irakaskuntza-kooperatiba bat da. Santutxun sortu zen 1977an, familia talde baten bultzadari esker, auzoko eta inguruko haur eta familiei hezkuntza euskalduna, integrala eta aurreratua eskaintzeko helburuarekin, bakearen, justiziaren eta elkartasunaren balioetan oinarrituta. Gaur egun Txurdinaga auzoan dago, eta bere eragin-guneak Santutxu, Bolueta, Begoña, Txurdinaga eta Otxarkoaga auzoak hartzen ditu, hau da, 60.000 biztanle inguruko eremua.

Kirikiño ikastolak kooperatiba gisa bideratzen du bazkideen seme-alaben irakaskuntza, eta kooperatibismoaren balioekin eta printzipioekin bat egiten du guztiz: elkarri laguntzea, erantzukizuna, demokrazia, berdintasuna, ekitatea eta elkartasuna, besteak beste. Kooperatiba den aldetik, Euskadiko Lan Elkarteen, Irakaskuntza, Kontsumo eta Kreditu Kooperatiben Federazioaren (ERKIDE) kide da.

Kirikiño ikastola herri-ekimen gisa sortu zen, herrikoa eta herritik sortua, ingurune jakin batean, eta han bizi ziren familiei bere hezkuntza-proiektua eskaintzeko asmoarekin. Kirikiño ikastolaren erreferentzia eta eragin-eremu nagusia Bilbo da, udalerria bera baita inguru sozial, ekonomiko, kultural eta soziolinguistiko hurbila eta erreferentzia bere jarduera, komunikazio eta eragin-eremua, aliantzak eta abar planifikatzeko orduan. Bilbok definitzen du ikastetxearen nor-tasuna: Kirikiño ikastola Bilbokoa da.

Kirikiño ikastola, era berean, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko kidea da, eta bere printzipioak eta eredia partekatzen ditu. Elkartea erreferentzia-esparru nagusia da hezkuntza-jarduerarako zein berrikuntza pedagogiko eta metodologikorako, betiere bere autonomiari eutsiz.

Hezkuntza-esparruari dagokionez, bat dator oinarritzko printzipio honekin: "Euskal Curriculumaren garapenerako KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA da gaur IKASTOLA EREDUARI, etapaz etapa, lotura eta koherentzia emango diona" (Ikastolen Elkartea. Ikastola-eredua. Hezkuntza-Markoa, 2016).

Hezkuntza-sektorean erreferente izan nahi dugu Bilbon eta Bizkaian, ikastola indartsua eta gertukoa. Hezkuntza-ekintza etengabe hobetzeko eta ikasle guztiari hezkuntza integrala emateko lan egiten dugu, bai eta giza eta hezkuntza-alderdietan ahalik eta arrakastarik handiena lortzeko ere. Une bakoitzeko beharretara egokitzen jakin behar dugu, hezkuntza-komunitatea osatzen duten taldeek adierazitako eskaerak eta beharrak bete ahal izateko. Egungo gizarte teknologikora egokitu ahal izateko beharrezkoak diren baliabide guztiak jarri behar ditugu ikasleen eskura, eta gure profesionalen ezagutzak etengabe eguneratzen direla bermatu behar dugu.

Gure ikastola hainbat familia motak osatzen dute, gure egungo gizartearen isla fidela. Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea familia horietako asko ikasle ohiek osatzen dituztela, eta horiek ikastolako profesionalen esku uzten dutela hurrengo belaunaldien hezkuntza.

Egoera soziolinguistikoki dagokionez, gure inguruko familien % 22 euskaldunak dira, % 28 ia euskaldunak eta % 50ek ez dakite euskaraz; egoera Bilboko gainerako auzoetan dagoenaren berdina da. Ikastolako familien kasuan, portzentaje horiek pixka bat aldatzen dira, gurasoen he-rena euskalduna delako (familien % 17an biak, eta familien % 33an bat).

Ikasleen profila askotarikoa bada ere, ikastolan lantzen ditugun balioetan heziak dira eta, ondorioz, guztion arteko elkarbizitza eta errespetua zaintzeaz eta giro atsegina eta familiarra sortzeaz arduratzen gara.

Kirikiño ikastolak guraso euskaldun eta euskaltzaleak biltzen ditu, familien hezkuntza-koo-peratiba gisa funtzionatzen du, familiek eta erakundeak seme-alaben heziketan duten erantzukizun partekatuan oinarritutako parte-hartzea sustatzen du, hezkidetzaren ikuspegitik, giro anitza eta askotarikoa izanik, diskriminazio mota guztiak gainditzeko eta hezkuntza-eredu ekitatiboa bermatzeko.

Kirikiño ikastolaren helburua ikasleek hezkuntza osoa euskaraz jasotzea da, eta beste hizkuntza batzuetan ere bai, euskal curriculuma oinarri eta abiapuntu hartuta.

Printzipio horien arabera, Kirikiño ikastolak erantzun euskaldun egokia ematen dio XXI. mendeko gizarte eleaniztunari, hau da, euskara ardatz duen eleaniztasuna. Hala, bada, euskarazko curriculuma lantzea proposatzen du, euskara bere lurralde eta hizkuntza-eremu guztietan erabat gara dadin errazteko eta laguntzeko, eta, aldi berean, ikasleek gaztelania eta ingelesa ezagutu eta erabil ditzaten. Era berean, laugarren hizkuntza bat ere eskaintzen dugu, frantsesa, gure inguruan eta, oro har, kultura humanistikoan funtsezkoa den hizkuntza.

Ikasleen hezkuntza-jarduna eta irteera-profila zehazterakoan, Kirikiño ikastolak erakundearen balioei buruzko atalean jasotako balioak hartzen ditu oinarritzat eta erreferentziazat.

Era berean, ikastolak Hezkuntza, altxor ezkutua (Delors, 1996) txostenean adierazitako balioekin bat egiten du, hau da: tolerantzia, elkar entzutea, demokrazia, erantzukizuna, unibertsal-tasuna, kultur identitatea, bakegintza, pobrezia-aren aurkako ekimena, ingurunearen zaintza, erregulazio demokratikoa eta osasuna.

Balio horiek jasotzen dira hezkuntza-proiektu honetan, haiek erabaki eta aukeratu ziren ikastola sortu zenean, eta ikastolako bizitza une oro zuzentzen dutenak dira.

1.2. HEZKUNTZA-BEHARREN AZTERKETA, IKASLEEN IKASKUNTZA-EMAITZETAN OINARRITURIK.

Gure ikasleak dagokion legeriak ezarritako bidean gidatzen ditugu, eta, ikastolatik igaro ondoren, proposatutako irteera-profila betetzen dutela bermatzen dugu. Hala erakusten dute barne eta kanpo ebaluazioek.

Urteko promozio-ehunekoak beti dira handiak eta % 100etik gertukoak; hala ere, gure arrakastaren adierazlerik handiena eta funtsezko helburua gure ikasleen garapen integrala eta ongizate pertsonala eta akademikoa dira. Kanpoko probek gure ikasleen prestakuntza egokia berresten dute: Batxilergoa amaitzen duten ikasleen % 100ak arrakastaz egiten du unibertsitatera sartzeko azterketa (USE).

1.3. IKASTOLAREN HEZKUNTZA-PRAKTIKA OROKORRA ETA ANTOLAKUNTZA.

Kompetenzietan oinarritutako metodologiaren alde egin du ikastolak, lege esparruak ezartzen duen bezala eta Ikastolen Elkartearen hezkuntza-esparruarekin bat etorritik. Hala, Kirikiño ikastolak, bere proposamen didaktikoa eskaintzeko orduan, integrazioaren pedagogia aukeratu du gaitasun horiek garatzeko abiapuntu gisa.

Horrenbestez, kompetentziak eta hezkuntza-egoerak erreferente nagusi bihurtzen dira landuko diren baliabideak (edukiak) aukeratzeko. Egoera horiei irtenbide egokia emateko gakoa erabilitako baliabideen erabilera integratua eta estrategikoa da.

Horrela, irakaskuntza, etapa guztietan zehar, arazo-egoeretan oinarrituta dago (ingurune edo testuinguru jakin batean konpondu beharreko zereginak, non jarduera bat egiten den edo ekimen bat garatzen den), eta ikasleek zeregin hori modu gaituan ebatzi behar dute, modu integratuan eta dituzten baliabideak erabiliz. Horrela, planteatzen ditugun arazo-egoerak ikasleen irteera-profilean jasotako oinarritzko gaitasunetan zentratzen dira.

Arazo-egoera horietan, hainbat eremu integratzen saiatzen gara: pertsonala, soziala, akademikoa eta lanekoa, kognitiboa, afektiboa, motorra... Nolanahi ere, gure erronkarik handiena konplexutasun bereko edozein erronka edo arazo modu kompetentean ebazteko erabili diren baliabideak transferitzea da.

Izan ere, ezin dira modu berean landu ikasleek etapa bakoitzean erabili behar dituzten kompetentziak eta arazo-egoerak. Horregatik, lehen etapetan (Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan) bizi-egoerekin lan egiten dugu, hau da, ikasleen bizipen hurbilenekin, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan helduarorako prestatuko dituzten egoerak eta erronkak jorratuz.

Gaur egun, Batxilergoa nagusiki USE frogaren prestaketara bideratuta dago, unibertsitatean sartzeko derrigorrezko proba. Edonola ere, kompetenzietan oinarritutako irakaskuntza baterantz bideratzen gara, bereziki lehen ikasturtean, USEren ezaugarriak eta eskakizunak aldatzen ez diren bitartean behintzat.



2. PRINTZIPIOAK, BALIOAK ETA NORTASUN-EZAUGARRIAK

Hezkuntzaren helburu nagusia pertsonaren garapen integrala da. Horregatik, derrigorrezko hezkuntzan, belaunaldi berriak helduarorako prestatu behar dira, eta oinarri sendoak eskaini behar zaizkie, ikasten jarrai dezaten eta bizitza zentzuz bideratzeko gai izan daitezen, beren destinoak aukeratu ditzaten eta beren aukeren kargu egin daitezen, eta gizartean modu aktibo, kritiko eta arduratsuan integra daitezen.

Kirikiño ikastola osatzen dugun guztiok, profesionalek eta familiek, hezkuntza-erakundeekin batera, gure proiektuaren oinarritzko balioak sustatzen ditugu ikastolako arlo guztietan, gure ikasleei prestakuntza integrala eskaintzeko asmoz.

Hezkuntza integral hori lortzeko, prestakuntza tekniko eta akademikoaz gain, arlo fisiko, kognitibo, afektibo-emozional, sozial, kultural, moral, estetiko eta espiritualaren garapen orekatua eskaintzen dugu. Gure helburua ikasleak helduarorako prestatzea da, bizikidetzaren harmonikoagoa eta osoagoa izateko, gizarte justuago eta ekitatiboagoa eraikitzeko konpromisoa duen gizabakano gisa, gizarte plural eta global baten kide aktibo gisa, eta naturaren kontserbazioarekin eta garapen iraunkorarekin konpromisoa duen pertsona gisa.

Helburu hori lortzeko, honako balio hauei emango diegu lehentasuna, eta balio horiek definituko dute **ikasleen irteera-profila**:

- **Izaera autonomo kritikoa:** bere burua estimatzea (norberaren sentimenduak, sinesmenak eta irudia onartzea), autonomiaz jokatzeko gai izatea eta zentzu kritikoa, konfiantza, erantzukizuna eta sormena garatzea.
- **Tolerantzia eta errespetua:** giza eskubideetan oinarritutako harremanak ezartzea. Pertsona guztien eskubideak errespetatzeko eta gizarte-bazterkeria arbuiatzeko jarrera aktiboa adieraztea.
- **Kooperazioa:** ikasleak gizarteko partaide direla kontzientziatzea eta herritar kritiko, arduratsu eta integratuak izan daitezen prestatzea. Ikasleak prestatzea erabakiak hartzerakoan koherenteak izan daitezen, informazioa modu autonomoan bilatu, aztertu eta baloratu dezaten, argudio koherenteak sor ditzaten eta IKTak modu kritiko eta eraginkorrean erabili ditzaten. Elkarlana sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, gizartea etengabe hobetzen saiatzeko, betiere gure balioak oinarri gisa hartuta. Gure gizartearen isla garenaz, ikastola

ere anitza eta askotarikoa da, eta familien, ikasleen eta profesionalen arteko elkarlana sustatzen du.

- **Erantzukizuna:** geure jokabideei buruz hausnartzeko gai izatea, jakitun izanik gure jokabideak ondorioak izan ditzakeela gugan eta besteengan. Ikasleek beren ekintzen erantzule izan behar dute, eta haien ondorioez kontziente izan. Horrek berekin dakar, halaber, ondasun pertsonalak eta kolektiboak kontserbatzea eta errespetatzea.
- **Elkarbizitza:** giza eskubideak osorik errespetatzea eta hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko errespetua bermatzea.
- **Inklusioa:** gure inguruko pertsona guztiak onartzea eta errespetatzea, arraza, jatorria, kultura, gaitasuna, adina, generoa, joera sexu-afektiboa, baliabide sozioekonomikoak eta abar berezi gabe. Pertsona guztiei elkartasuna adieraztea, hurbilekoei zein urrunekoei, eta haiei laguntzeko nahia adieraztea. Beste kultura batzuetako balioak eta ohiturak ezagutzeko eta errespetatzeko jakin-mina eta interesa garatzea.
- **Ekitatea, berdintasuna eta hezkidetzia:** pertsona guztien berezitasunak aitortzea, aukera-berdintasuna bermatzea eta bazterkeriaren eta genero-indarkeriaren aurkako jarreran hezteak.
- **Euskaltzaletasuna:** euskara eta euskal kultura ezagutu, erabili, bultzatu eta bizi. Gure errealitatearen eta kulturaren kontzientzia izatea eta beste errealitate eta kultura batzuetarantz irekitzea.
- **Hizkuntza normalizazioa eta eleaniztasuna:** euskararen normalizazioa sustatzea eta ikasle eleaniztunak hezi eta prestatzea.
- **Ekimena eta ahalegina:** ahalegina eta lana baloratzea. Ideiak sortzeko eta kudeatzeko prozesuan norberaren gaitasunez jabetzea, norberaren hobekuntza eta gainditzea bilatzea lanaren bidez, eta geure ideiak besteekin aberastea. Era berean, diziplina eta pazientzia garatzea, frustrazioa orainaz harago gainditzeko eta kudeatzeko gaitasunarekin batera.
- **Ingurumena zaintzea:** natura gizateriaren ondare nagusia dela aitortzea, eta gure ardura dela hurrengo belaunaldiei ingurumen hobea uztea. Baliabide naturalak mugatuak dira eta gure eragin negatiboa (aztarna ekologikoa) minimizatzen saiatu behar dugu. Horretarako, hondakinak birziklatzeko jarduerak bultzatuko dira, "zero hondakin" praktikak sustatuko dira, eta baliabideak zentzuz erabiliko dira, jarduera kutsagarriak saihestuko dira eta, oro har, natura zainduko da.
- **Ikusmira zientifikoa:** arazoak prozedura zientifikoaren bidez ebaztea, teknologiaren kalitatea, erabilgarritasuna eta boterea baloratzea, gizartearen nahiei eta beharrei erantzuteko, eta informazio okerrean oinarritutako aurreiritziak saihestea, irizpide sendoetan oinarritutako balioak eraikitzeak.
- **Osasuna zaintzea:** osasun-ohitura onak izatea, jarduera fisikoaren garrantziaz jabetzea, erregulartasunez praktikatzeko, maila pertsonalean oreka eta bizi-kalitatea bilatzea, bai arlo fisikoan bai emozionalean eta sozialean, eta elikadura-ohitura eta -eredu osasungarriak izatearen garrantziaz jabetzea.

Horretarako, ikastolak honako **balio instituzional** hauek sustatuko ditu:

- **Elkarlana:** ikastolako zereginetan eta erabakietan hezkuntza eragileen parte-hartzea erraztuko dugu, bakoitzari dagokion eremua eta maila kontuan hartuta, ikastolak eskaintzen duen zerbitzua erabiltzaile guztientzat egokiagoa eta hobea izan dadin lortzeko asmoz.
- **Konfiantza:** gure arteko harremanak konfiantzan eta gardentasunean oinarritzea funtsezkotzat jotzen dugu.
- **Komunikazioa:** argia eta arina izan behar du uneoro. Parte-hartzaile guztiek beren esku-hartzea eraginkorra izan dadin beharrezkoa den informazioa izatea bermatuko dugu. Komunikazio bertikala eta horizontala sustatuko dugu uneoro.
- **Malgutasuna-Moldagarritasuna:** beharrezkoa eta komenigarria denean, lantaldeak antolatuko ditugu egitura formaletatik kanpo, arazoak aztertu eta konpontzeko eta proiektuak garatzeko.
- **Aintzatespena:** gure ustez, beharrezkoa da gure aintzatespena erakustea bai ikastolaren helburuen alde lan egiten duten pertsona, erakunde eta instituzioei, bai haien eginkizunetan nabarmentzen direnei.
- **Banakako ekimenak eta ekimen kolektiboak sustatzea.**
- **Lidergoa:** pertsonengan erantzukizuna sustatzea, ikastolaren helburuak propiotzat har ditzaten eta pertsona taldeak zuzendu eta koordinatu ditzaten.
- **Erantzukizuna, erantzunkidetasuna eta delegazioa:** ikastolaren funtzionamendurako funtsezkoa da zereginak eta ardurak banatzea, delegatzea eta aitortzea ikastola hobetzea guztion ardura dela.
- **Irekitasuna eta proiektzioa:** gaur egun, ikastetxeek erakunde zabalagoetan parte hartu nahi dute, beren proiektua elkarlanaren bidez sendotu ahal izateko. Guk ere horrela ulertzen dugu eta, horregatik, kanpoko erakundeekin (hezkuntzakoak, udalekoak, auzokoak eta abar) elkarlanean aritzea eta parte hartzea bilatzen dugu. Era berean, hainbat saretako kide gara (Ikastolen Elkartea, Erkide, etab.), eta haiekin modu eraginkorrean elkarlanean jarraitzeko asmoa dugu.
- **Erabateko kalitatea kudeatzeko printzipioak:** kudeaketa-eredu aurreratuaren printzipioak onartzen ditugu, hala nola adierazleetan oinarritutako kudeaketa, erabiltzailearenganako ikuspegia, lidergoa eta helburuen jasagarritasuna, prozesuen araberako kudeaketa, pertsonen garapena eta inplikazioa, etengabeko hobekuntza eta berrikuntza, aliantzen garapena, gizarte-erantzukizuna, etab.
- **Euskalduntzearen aldeko ekimenak:** ikastolak euskara eta euskal kultura zabaltzeko ekimenak sustatuko ditu, bai eguneroko funtzionamenduan, bai helburu bera duten kanpoko erakundeekin elkarlanean, betiere erakunde horiekin balioak partekatzen badira.



3. HELBURUAK ETA LEHENTASUNAK

3.1. HELBURUAK

2016-2017 ikasturtean, ikastolako hezkuntza-komunitatea osatzen duten kolektiboetako ordezkariak, 100etik gora, hausnarketa estrategikoa egin zuten. Prozesu horretan, hurrengo urteetarako ildo nagusiak, lan esparruak, helburuak eta lehentasunak ezarri ziren:

1. helburua. Ikastolaren kontzeptua indartzea, kooperatibaren eta euskararen indar-ideien eta hezkuntza-proiektu honetan adierazitako balioen inguruan.

Kirikiño ikastola familia kooperatiba bat da, eta hezkuntza-jardueraren bidez euskal hizkuntza eta kultura ikasleen artean zabaltzea du helburu. Ikastolaren inguru soziolinguistikoa kontuan hartuta, helburu hori lortzea erronka handia da guretzat; beraz, gaur egungo eta etorkizuneko egoera kontuan hartuta, horri heltzea eta aurrera eramatea lehentasuna da ikastolarentzat.

2. helburua. Proiektu pedagogikoa definitzea eta indartzea.

Kirikiño ikastolak erreferente izan behar du, eta, horretarako, etengabe berritu. Garrantzitsua da familiek eta kanpoko eragileek ahotsa izatea hezkuntza-prozesuan eta kudeaketan. Berrikuntza-prozesuak ikasleen gaitasunak eta konpetentziak garatzea izan behar du helburu.

3. helburua. Komunikazioa eta kooperatibaren irudia indartzea.

Ikastolaren kudeaketaren ardatzetako bat izango da komunikaziorako eduki eta kanal eraginkorrak ezartzea, bai ikastolako hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonen eta kolektiboen artean, bai haren eta ingurunearen artean ere.

4. helburua. Proiektu partekatua bultzatzea eta indartzea.

Proiektu partekatu bat bultzatzea eta kide izatearen sentimendua sustatzea. Era berean, ikastolak lankidetzarako guneak eskainiko dizkie bere kideei, bai hezkuntza-prozesuan, bai beste hainbat arlotan.

5. helburua. Kalitatea kudeatzeko eredu bat garatzea.

Kudeaketa-eredu aurreratua garatzea, eraginkortasunez eta efizientziaz, eta kudeaketa-prozesuen eta -tresnen etengabeko hobekuntzan oinarrituta.

3.2. LEHENTASUNAK

Lehenengo helburua "ikastolaren kontzeptua indartzea: kooperatibaren eta euskararen indar-ideien eta hezkuntza-proiektu honetan adierazitako balioen inguruan" izanik, hurrengo ikasturteetan ikastolako familiei, profesionaleri eta ikasleei kooperatiba sentimendua helarazteko ahaleginak lehenetsiko dira, baita ikastola osatzen duten kolektiboen eta kideen parte-hartzea sustatzeko ahaleginak ere. Era berean, euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatuko dira.

Ikastolaren bigarren helburu nagusia haren proiektu pedagogikoa birdefinitu, garatu eta indartzea da, eta, horretarako, hezkuntza-komunitatearen parte-hartze aktiboa eta berau osatzen duten pertsonen eta kolektiboen arteko elkarlana eta lankidetzak sustatuko dira.

Komunikazioa sustatzeko eta kooperatibaren irudia indartzeko, batzordeen lana eta familiek parte hartzeko bideak berrikusi eta indartuko dira, baita IKTen erabilera ere, eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzeko eta barne- eta kanpo-komunikazioa errazteko.

Kirikiño ikastola proiektu sendoa eta eraginkorra da, hura osatzen duten pertsona eta kolektibo guztien konpromisoari eta parte-hartzeari esker. Izan ere, parte-hartze hori funtsezkoa da ikastola benetan partekatutako proiektua izatea nahi badugu.

Gure lehentasunetako bat kalitatezko kudeaketa-eredu eraginkor eta efiziente bat garatzea da, taldean sortutako prozesuak garatu eta hobetzeko.

4. CURRÍCULUMAREN ETA ANTOLAMENDUAREN ESPARRUETAKO AUKERAK

4.1. CURRÍCULUMAREN ESPARRUA

4.1.1. METODOLOGIA

Ikastola gisa dugun helburu nagusia ikasleen garapen integrala lortzea da, haien gaitasunak garatzea, etorkizuneko arazoei eta erronkei modu eraginkor eta etikoan erantzuteko gai izan daitezen, eta horretarako funtsezkoa da pertsona konpetenteak eta ekintzaileak hezteak. Prozesu horretan, familiekiko eta beste erakunde batzuekiko lankidetzak sustatu behar dugu, ikastolak zehaztutako ikasleen irteera-profila ziurtatzeko.

Ondorioz, gure ikasleek arlo guztietan garatu behar dituzten oinarrizko konpetentziak honako hauek dira:

- **Norbera izaten ikasi.** Honen barruan aspektuok landu eta garatu beharko dira:
 - Nork bere buruaren estimu baikorra eta errealista izatea.
 - Norbere sentimenduak eta emozioak antzeman eta zentzuz kudeatzeko gaitasuna izatea.
 - Autonomia eta erantzukizuna garatzea, ikaslea gai da bere kasa pentsatzeko, erabakiak hartzeko eta hartutako erabakien ardura bere gain hartzeko.
 - Sentikortasun estetikoak.
 - Jakin-mina eta irudimena.

- **Pentsatzen eta ikasten ikasi.** Konpetentzia hau lortzeko beharrezkoa iruditzen zaigu:
 - Gure gizartean funtsezko ezagupenak ikastea (prestatuntza akademikoa).
 - Euskal kulturari dagozkion oinarriko ezagupenez jabetzea.
 - Informazioaren kudeatzeari loturiko gaitasunak (informazioa modu kritikoan bilatu, aztertu, sintetizatu, hura berreraiki eta komunikatu).
 - Bizitzan zehar ikasten jarraitzeko ikas teknikak eta estrategiak lortzea.
 - Baliabide kognitiboak erabiltzea, jokabideak erregulatzeko, estrategikoki jokatzeko eta ikasitako beste egoera batzuetara transferitzeko.
- **Egiten eta ekiten ikasi.** Gaitasun honen barruan hurrengo aspektuok kontuan hartzen ditugu:
 - Arazoak ebazteko prozedurak menderatzea.
 - Irmotasuna eta huts egitearen aurrean tolerantzia izatea.
 - Pentsamendu konplexua.
 - Sormena garatzea.
 - Egindako ekintzak ebaluatzea eta hobekuntza proposamenak egitea.
- **Elkarrekin bizitzen ikasi.** Honek dakar:
 - Modu eraginkorrean komunikatzen jakitea. Gatazkak ebazteko elkarriketa eta adostasuna bilatzen duten prozesuei lehenetasuna ematea, arreta jarriz eta entzuteko jarduera aktiboa hartuz, enpatia erakutsiz, behar duenari lagunduz eta hitzarmen eta arau sozialak betez.
 - Helburu komuna duten zereginetan elkarlanean aritzea.
 - Elkartasuna, desberdinak diren eta desberdin pentsatzen duten pertsonak onartzea eta errespetatzea.
 - Ikastola-testuinguruko eta handik kanpoko ekimenetan modu aktiboan parte hartzea.
- **Komunikatzen jakitea.**
 - Ahoz eta idatziz jarioasunez, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez komunikatzea.
 - Komunikazioan hitz gabeko hizkuntzaren, hizkuntza artistikoaren eta hizkuntza matematikoaren oinarriko kodeak modu integratuan erabiltzea.
 - Gizarteko komunikabideetako mezuak modu kritikoan interpretatzea eta ebaluatzea.
 - IKT baliabideen erabilera egokia, eraginkorra eta arduratsua egitea: informazioa kudeatzeko eta adierazteko, ekintzak gauzatzeko eta adierazteko eta elkarrekin ikasteko.
 - Euskal gizarteko eta munduko errealitate soziokomunikatiboa modu kritikoan interpretatzea, eta inguruko komunikazio-prozesuetan modu arduratsuan eta zentzu etikoan parte hartzea.

Konpetentzia horiek garatzeko erabiliko dugun metodologia printzipio hauetan oinarritzen da:

1. **Ikaslea (pertsona), hezkuntza-prozesuaren ardatz eta protagonista gisa.** Ikaslea da ikas-kuntza-prozesuan garrantzitsua, bera baita bere pentsamendu-egiturak, ezagutza-sistemak eta eskema kognitiboak eraiki behar dituen eta errealitatea ulertzeko konpetentziak garatu behar dituen.
2. **Ikaslea egoera konplexu eta esanguratsuen aurrean kokatzea.**



3. Irakaslea gidari, bi-tartekari, motibatzaile eta behatzaile: irakaslea izango da ikaskuntza-prozesuaren bideratzailea. Irakaskuntza-jarduera (material didaktikoak eta ebaluaziokoak, jarduerak eta estrategiak) erabiliko du ikasleen beharretara egokitzeko (ikasteko estiloa, adimen anitzak, erritmo eta interes desberdinak), eta ikasleen ikaskuntza-prozesua lehenetsiko du.

4. Globalizazioaren printzipioa. Irakaskuntza-estrategia desberdinak erabiliko ditugu, ikaslearen edo eskuratu beharreko kompetenziaren arabera. Uneoro bilatuko dugu estrategia didaktikorik egokiena, ikasleek beren kompetentziak eskuratu eta gara ditzaten. Ikasteko edukiak aukeratzean, diziplinartekotasuna eta proiektuetan oinarritutako lana sustatuko ditugu.

5. Ikasketa esanguratsuaren printzipioa. Ikaskuntza-testuinguruak bermatuko dira, ikasleen interesak abiapuntu gisa hartuta, garatu beharreko ezagutza eta kompetentziekin harreman irmoak ezartzea ahalbidetuko dutenak, alde zurretik eskuratutako eskemekiko beharrezko disonantzia kognitiboa sortuko duten esperientziak eskainiz.

6. Garapen sozioafektiboaren printzipioa. Pertsonen arteko harremanak sustatuko dira, gizarteratzeko eta gizartean integratzeko gaitasunak eta trebetasunak garatzen laguntzeko. Trebetasun horiek garatzeko, eta gizarte-harremanak garatzeko eta sendotzeko, lankidetzeta eta erantzukizuna bezalako jokabideak landuko dira.

7. Errotze-abiaburua. Ikaskuntza-edukiak aukeratzekoan, haurren hurbileko testuingurutik hasiko gara eta zabaltzen joango gara. Horrela, beste errealitate batzuk ezagutzeko beharrezkoak diren jakin-mina, interesa eta jarrera irekia piztuko dira.

8. Berrikuntzaren printzipioa. Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan teknologia berrien erabilera sustatuko dugu, eta ohiko prestakuntza akademiko sendoari beste programa osagarri batzuk gehituko dizkiogu (eleanitz, etab.).

9. Indibidualizazioaren printzipioa: ikasle bakoitza desberdina da, eta, beraz, bere errealitatea ezagutzeko da (interesak, erritmoak, egoera soziala eta kulturala...) eta hari egokituko zaio irakatsi eta ikasteko prozesua.

10. Adimen emozionala garatzearen printzipioa. Haien ongizate emozionala bermatzeko, ikasleei testuinguru eta estrategiak emango zaizkie, beren emozioak identifikatu, ezagutu eta kudeatzeko, beren burua erregulatzeko gai izan daitezen.

Metodologia honen bidez lortu nahi duguna da:

- Gure helburu nagusia gure ikasleen garapen integrala izanik, haien nortasuna eta gaitasunak errespetatu eta garatuko ditugu.
- Ikaslea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ardatz eta protagonista izanik, metodologia motibatzaile bat eskainiko zaie uneoro, haien interesetatik, jakin-minetik eta aurretiazko eza-gutza eta kompetentzietatik abiatuta, haien nahiak gauzatzen eta ideiak segurtasunez eta berritzeko eta ekiteko gaitasunez garatzen ikasteko aukera emango diena.
- Gure ikasleen gidari eta bidelagun izatea ikaste-prozesuan zehar, eta haien ondoan izango gaituztela sentiaraztea, zailtasunak gainditzen eta beharrak asetzen laguntzeko.
- Ebaluazio-sistema egokia, hezitzailea eta eraginkorra eskaintzea, gure ikasleen ezaugarrietara egokituko dena eta ikasleen beharrak eta ikasteko erritmoak kontuan hartuko dituena.
- Ikaskuntza-irakaskuntza prozesua etengabe hobetzeko ebaluazio prozesu eraginkorra garatzea.
- Familiei beren seme-alaben ikaskuntza-prozesuaren egunerokotasunean parte hartzeko aukerak eskaintzea, komunikazioa eta beharrezko informazio-trukea ziurtatuz.
- Integrazioaren pedagogia: kompetentziak garatzea eta eskuratzea eta kompetentzia horiek haien bizitzan zehar aplikatu beharko dituzten testuinguruak eta egoerak identifikatzea bi elementu bereizezin dira gure ikasleen heziketan.

4.1.2. EBALUAZIOA

Ezin ditugu bereizi ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa eta curriculumaren gainerako osagaiak. Kontuan izanik, alde batetik, ikastolak proposatzen duen eredu pedagogikoa kompetentzietan oinarritutako hezkuntza-ikuspegi batetik datorrela, eta, bestetik, ikasleen irteera-profilak kompetentzia horien garapena ezartzen duela, ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioak oinarri horiekin bat etorri behar du. Izan ere, ebaluazio sistemak zehaztuko du ebaluatu nahi ditugun emaitzak lortzeko aplikatzen dugun metodologia.

Ebaluazio-prozesua, berez, konplexua da, alderdi ugari ditu eta ikaskuntza-prozesua osatzen duten elementu guztiak hartzen ditu bere baitan, hala nola ikasleak, irakasleak, ikastetxea, metodologia, curriculum, baliabideak, jarduerak, familiak eta hezkuntza-sistema.

Ebaluazioak aukera ematen digu informazioa etengabe eta sistematikoki biltzeko eta aztertzeko, ikasleek espero ziren emaitzak lortu dituztela aztertzeko eta egiaztatzeko, eta etorkizunean erabakiak hartzeko gida gisa balio du. Era berean, kanpoko probek programatutakoaren egokitasuna baloratzen lagunduko digute.

Ikastolak autoebaluazioa eta koebaluazioa sustatuko ditu, ikasleek gero eta modu autonomoagoan erregula dezaten beren ikasketa prozesua.

Beraz, ebaluazioak helburu hauek izango ditu:

- Ikasleen abiapuntua jakitea ikaskuntzaren prozesuan (hasierako ebaluazioa).
- Ikaste-prozesuan aurrera egin ahala ikasleak dituen indarguneak eta ahulguneak hautematea (ebaluazio hezitzailea) eta momentuko premietara egokitzea.
- Ikasleak lortu duen maila ziurtatzea (ebaluazio sumatiboa).

- Ikasleak bere ikasketa prozesua erregula dezan balio izatea (autoebaluazioa eta koebaluazioa).
- Ikas eta ebaluazio prozesuak aztertzeko eta hobetzeko ikasleen eta irakasleen arteko elkarlana bereziki bultzatzea (ebaluazio partekatua).

Ebaluazio ereduaren ezaugarriak izango dira:

- Ikasleek lortzen dituzten kompetenzien lorpen-maila neurtzeko aproposa.
- Jarraitua. Haren oinarriak dira kompetenzien lorpenaren maila eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren analisisa. Prozesu honetatik lortzen den informazioa baliagarria izan behar da ikaste-irakaste prozesua hobetzeko.
- Orokorra. Ikasleen ikaste prozesuan lortutako jakiteak ez ezik, beste faktore batzuk aintzat hartuko ditugu (garapen maila, sozializazioa, ikasteko ingurua, etab.). Batez ere, ebaluazio mota hau garatuko da Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan.
- Integratzailea. Ebaluazio prozesuaren bitartez ikasgaietan lortzen dugun informazioa batu eta aztertu egingo dugu. Ebaluazio hau DBHn eta Batxilergoan bereziki garatuko dugu.
- Metaebaluazioa. Ebaluazioaren bidez lortu nahi ditugun helburuak asetzeko egindako prozesuaren balioa aztertea.

4.1.3. HEZKUNTZA-ESKAINZA

Ikastolak irakaskuntza integratua eskaintzen du 2-18 urte bitartean honela banandurik:

- Haur Hezkuntza: 2, 3, 4 eta 5 urteko gelak (3 gela kurtso bakoitzeko).
- Lehen Hezkuntza: 1.- 6. mailen artean (3 gela kurtso bakoitzeko).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 1.- 4. mailen artean (3 gela kurtso bakoitzeko).
- Batxilergoa: 1. eta 2. mailak (2 gela kurtso bakoitzeko).

4.1.4. ANIZTASUNARI ERANTZUNA

Aniztasunari erantzuna ematea da ikastolaren erronka handienetako bat. Ikasle guztien berezitasunei erantzun egokia ematen dien irakaskuntza kalitatezko irakaskuntza da. Aniztasunari erantzutea profesional guztiei dagokie, eta ikasle guztiak eta aniztasunaren alderdi guztiak hartzen ditu kontuan: kultura, gaitasunak, joera sexualak eta afektiboak, generoa, baliabide sozio-ekonomikoak eta abar.

Gure hezkuntza-jarduerak erantzun egokia eman nahi die ikasle bakoitzaren beharrei eta ezaugarriari (behar, adimen eta gaitasun anitzak, interes desberdinak, ikasteko estiloak eta abar), eta ardura hori ez dagokie ikastolako profesionali bakarrik; gurekin bat eginik, familiek, gizarte-inguruneak eta hezkuntza-administrazioak ere asko dute eskaintzeko.

Gure ikasle guztientzako inklusio-irizpideetan oinarritutako hezkuntza-sistema justu eta kalitatekoa garatzeko konpromisoa hartzen dugu. Hezkuntza prozesu jarraitu gisa ulertzen dugu, eta prozesu horretan arrakasta eta pertsona guztien parte-hartzea bilatzen dugu, inolako bazterkerarik gabe. Horretarako, antolaketa-baliabideak, hezkuntza-eragileekin lankidetzan aritze-

koak eta abar erabiliko dira. Era berean, lehenetsuna emango zaio egokitzapen didaktiko komu-
nak eta orokorrak erabiltzeari, neurri bereziak gutxiago erabiltzea ekarriko duelakoan.

Hartu beharreko neurrien artean, bi motatakoak jarriko ditugu indarrean:

1. NEURRI OROKORRAK: ikasle guztien aniztasunera bideratutako neurriak (programazioak egokitzea, jarduerak edo material bereziak, taldekatze malgua, errehabilitazio-jarduera be-
reziak, ebaluazio integrala, askotariko metodologiak, etab.).
2. NEURRI ESPEZIFIKOAK: behar bereziak dituzten edota gelako erritmoari edo mailari ja-
rraitzea kostatzen zaien ikasleei eskaintzen zaizkienak, dela zailtasunagatik, dela gaitasun-
maila handiagoa dutelako, gaitasun handiko ikasleen kasuan, hala nola banakako
curriculum-egokitzapen esanguratsuak eta ez-esanguratsuak, curriculum-aniztasuna, pe-
dagogia terapeutikoko espezialistak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, gaitasun handiak
dituzten ikasleei arreta emateko neurriak eta abar.

4.1.5. ORIENTAZIOA ETA TUTORETZA

Ikastolan 2 eta 18 urte bitarteko ikasleei eta haien familiei jarraipen zuzena eta eraginkorra
eskaintzen ahalegintzen gara. Orientazio-sailak bizikidetzako, pedagogia- eta lan-orientazioko,
hezkidetzako edo tutoretzako urteko planak diseinatzen eta prestatzen parte hartzen du.

Aldi berean, orientazio-sailak honako arlo hauek jorratzen ditu:

- Barne-koordinazioa eta -antolaketa.
- Ikasleen garapen harmonikorako esku-hartze psikomotorra.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta ematea.
- Beharren hauteman goiztiarra garapen pertsonalean eta hezkuntza eta ikasketa-proze-
suan.
- Aniztasunaren tratamendua.
- Orientazio akademikoa eta profesionala bigarren hezkuntzako etapetan.
- Ikasleen ebaluazio psikopedagogikoa.
- Ikasleen, irakasleen eta familien aholkularitza eta prestakuntza.
- Profesionalekin eta kanpoko erakundeekin koordinatzea.
- Ikasle iritsi berrien harreran, ebaluazioan eta egokitzapenean esku hartzea.

4.1.6. HIZKUNTZEN ERABILERA ETA TRATAMENDUA

Kirikiño ikastolan hizkuntzen tratamendu integral eta integratua egiten dugu, egungo gizar-
tearen eskakizunek eleaniztasuna funtsezko helburu gisa ezartzera behartzen gaituztelako,
ahaztu gabe gure ikastola aukeratzen duten gurasoen nahia eta erabakia euren seme-alabek
euskara eta euskaraz ikastea dela. Horregatik guztiagatik, Kirikiño ikastolan, euskara ardatz
duen eskaintza eleaniztuna garatzen dugu, eta ikasleei gure erkidegoko bi hizkuntza ofizialak

irakasten dizkiegu, eta Europako beste bi hizkuntza ikasteko aukera ematen diegu: ingelesa eta frantsesa.

Konpetentzia linguistikoa, oinarritzko gaitasunetan integratua dago, eta ikas-arlo guztietan lantzen da. Hizkuntzak curriculum integratuaren bidez garatzen dira, eta, beraz, oinarritzko konpetentziak, arloko konpetentziak eta ikasturte amaierako konpetentziak komunak dira euskarari, gaztelanian eta ingelesean.

1. EUSKARA: ikastola bat izanik, gure helburu nagusia euskara eskuratzea eta transmititzea da, eta, era berean, ikasteko eta komunikatzeko tresna nagusia izatea.

Gure inguru soziolinguistikoa kontuan harturik, hauek dira proposatzen ditugun neurriak:

- Ama-hizkuntza euskara ez duten ikasleentzat, lan trinkoa eskaintzen dugu hasierako ikasturteetan (murgiltze programa), irakurketa eta idazketa, hasieran, euskaraz landuz eta, ondoren, gaztelaniaz.
- Ikastolako ingurune soziolinguistikoa eta gure ikasleen ama-hizkuntza kontuan hartuta, hezkuntza-jardunean lehenetsia emango zaio hizkuntza estandarri, gure ikasleen euskalduntze eraginkorra, koherentea eta integrala bermatzeko helburuarekin. Era berean, neurriak ezarriko dira ikastolako ikasleek, ahozko erregistroan, bizkaieraz ere gaitasuna izan dezaten.
- Euskara da ikastolako komunikazioaren ardatza eta erreferentzia-hizkuntza, bai ikasleekin, bai ikastetxeko profesionalen artean. Familiarekin eta beste erabiltzaileekin komunikazioan, lehenik eta behin, euskara erabiliko da, eta, ahal den guztietan solasaldia euskaraz izango da. Hala ere, solaskideak zailtasunik izanez gero, berak aukeratzen duen edota gaitasun handiena duen hizkuntza erabiliko da. Aukera dagokigun kasuetan, eta ahal den guztietan (erakunde publikoak, hornitzaileak, etab.), komunikazioa beti euskaraz egiteko ahalegina egingo da, lehen aukera gisa.
- Idatzizko komunikazioetan euskara izango da erreferentzia-hizkuntza, eta testuak, gutxienez, euskaraz egongo dira. Behar denean, beste hizkuntza batean edo batzuetan ere idatziko dira.
- Ikastolan, ikasleekin zein familia eta profesionalen arteko harremanetan, hizkuntza-eredu jasoa lehenetsikoa da, betiere, egoeraren eta solaskidearen arabera egokituta.
- Euskararen erabilera eta euskal kulturaren zabalkundea bultzatzeko ekimenak sustatuko ditugu, eta gure inguruko beste erakunde eta instituzio batzuek helburu berarekin antolatzen dituzten ekimenetan parte hartuko dugu.

2. GAZTELANIA: euskaraz bezala, gure helburua ikasleak gaztelaniaz ere erabat konpetenteak izatea da.

3. INGELESA: gure helburua da ikasleek, Batxilergoa amaitzean, ingeles-maila altua lor dezaten, Europako Erreferentzia Markoan B2 mailan zehazten diren konpetentzia gehienak eskuratzu. Horretarako indartze-neurriak ezarriko ditugu ikas-prozesu osoan zehar:

- Ikaskuntza-irakaskuntza goiztiarra (4 urtetik aurrera).

- DBHko 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. mailan ikasgai bat ingelesez emango dugu (Gizarte-Zientziak eta Kultura Zientifikoa hurrenez hurren).
- Metodologia aktibo baten erabilera (Eleanitz programa).

4. FRANTSESA: DBHn hautazko ikasgai bezala eskainiko dugu. Horren xedea ikasleak ohiko egoeretan oinarritzko elkarrizketa bat mantentzeko gai izatea da (Europako Erreferentzia Markoaren **A1** mailaren parekoa).

Helburu horiek lortzeko, metodologian egokitzapen batzuk egitea proposatzen dugu:

- Hizkuntzen tratamendu bateratua, integral eta integratua egitea.
- Metodologia, funtsean, komunikazio-kompetentziak eskuratzeko prozesuan oinarritzea.
- Metodologia eraikitzaile-elkarreragilea garatzea, ikasleen arteko eta irakaslearen arteko interakzioa erraztuko duena.
- Testua lan oinarria izatea. Eta testuaz ari garelarik, esangura zabalenean hartzen dugu. Horrela, eta ulermenari gagozkiolarik, euskarri, testu-tipologia eta testu-mota anitzen bitartez jasotako informazioa deskodetu eta egoera jakin batean erabiltzeaz ari gara. Era berean, sorkuntzaz ari garelarik, euskarri zein testuinguru edota tipologia anitzetako testuak sortu eta horien bitartez mezu bat, informatiboa ala ez, transmititzeaz ari gara.
- Ikasi beharreko edukien esangura bilatzea (kompetentzia-mailaren eta funtzionaltasunaren arabera moldatzea).
- Proiektuetan oinarrituriko metodologia sustatzea.
- IKTek (Informazio eta Komunikaziorako Teknologiek) hizkuntzak ikas-irakasteko eskaintzen dizkiguten aukerak sustatzea.
- Beste ikastetxe batzuekin hartu-emanak ezartzea eta europar programetan parte hartzea.
- Ikasleak hizkuntza bakoitzarekin lotutako kultura-adierazpenak ulertzea eta haietaz jabetzea.
- Hizkuntza-kompetentziak ikas-arlo eta ikasgai guztietan landu eta horietako irakasleekin era koordinatuan lantzea.
- Batxilergoan gure ikasleak zuzentzea hizkuntza-kompetentziaren ziurtagiriak lortzera.

Honekin guztiarekin lortu nahi ditugun helburuak honako hauek dira:

- Kirikiño ikastolako ikasleak guztiz kompetenteak izatea euskaraz zein gaztelaniaz komunikatzeko.
- Euskara eguneroko hartu-emanetarako hizkuntza izatea.
- Ikasleak trebeak izatea ingelesez ohiko komunikazioetarako, eta hala nahi duena frantsesez komunikatzeko oinarriez jabetzea.
- Ikasleek hizkuntzen bitartez haietako bakoitzari dagokion errealitate soziokulturala, tradizioak, adierazpen kulturalak eta ohiturak menderatzea.
- Inguru sozial ezberdinekin harremanetan jartzeko gai izatea.
- Lan-munduan egiten diren eskakizunak (ziurtagiriak) eskuratzeko laguntzea.

4.1.7. PRESTAKUNTZA ETA BERRIKUNTZA

Gure helburua eta misioa gauzatzeko, hezkuntza-komunitateko kide guztiek ahalik eta parte-hartze handiena har dezaten bultzatzen dugu, bai eta guztion etengabeko prestakuntza sustatu ere, ikastola osatzen dugun pertsonen esku-hartzerik eta eskuartean ditugun baliabideen erabilerarik eraginkorra eta efizienteena lortzeko asmoz.

4.2. ANTOLAMENDUAREN ESPARRUA

4.2.1. IKASTOLAREN ANTOLAMENDUA, FUNTZIONAMENDUA ETA KUDEAKETA

Ikastolaren printzipioei, balioei eta nortasun-ezaugarriei buruzko atalean, erakundeak sustatzen dituen balioak aipatu ditugu, sortu zenetik onartuak eta kooperatibaren estatutuetan jasok: lankidetzeta, konfiantza, komunikazioa, malgutasuna, aintzatespena, ekimena, lidergoa, erantzukizuna, proiektzioa, kalitatea, euskaltzaletasuna, etab., betiere kooperatibismoak sustatzen dituen printzipio eta oinarrien markoan.

Balio eta printzipio horiek zuzentzen dute ikastolaren antolaketa, funtzionamendua, kudeaketa eta eguneroko jarduna.

Ikastolaren antolaketa egitura, haren eginkizunak eta eskumenak beste dokumentu batzuetan zehaztuta daude, hala nola kooperatibaren estatutuetan edota Antolaketa eta Jarduera Araudian; beraz, lerro hauetan aipamen labur bat egitera mugatuko gara.

Indarrean dagoen legeriarekin eta kooperatibaren estatutuekin bat etorritik, kooperatibaren bazkideen Batzar Nagusia eta hark izendatzen duen Artezkaritza Kontseilua dira ikastolaren gobernu-organo nagusiak.

4.2.2. PARTE HARTZEKO EREDUA

Kirikiño ikastola gurasoen kooperatiba izanik, haren helburu nagusietako bat hezkuntza-komunitatea osatzen dugun guztion parte-hartzea sustatzea da: familiak, profesionalak eta ikasleak.

Helburu hori lortzeko, gurasoek, profesionalak eta ikasleek hezkuntza-komunitatean modu solidarioan hartu behar diren erabakietan parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko, batzordeak eta lantaldeak eratzen dira: gelako guraso delegatuen kontseilua, ikasgelako ikasleen ordezkarien batzordea (DBH eta Batxilergoa), Bizikidetzaren Batzordea, bai eta familiek parte hartzeko batzordeak ere (jantokia, eskolaz kanpokoak, euskaraz bizi, komunikazioa, etab.).

Parte hartzeko sistema horren bidez, honako hauek lortu nahi ditugu:

- Kirikiño ikastola osatzen dugun guztion parte-hartze aktiboagoa eta sakonagoa.
- Ikastola hobetzea guztion ardura delako kontzientzia garatzea.
- Ikastolaren proiektuarekiko guztion atxikimendua indartzea, hezkuntza-komunitatea osatzen dugun talde eta pertsona guztien kohesioa indartuz.
- Ikastolak sustatzen duen hezkuntza-proiektua gauzatzeko antolaketa egokia izatea.
- Ikastolaren irudia eta proiektua kanpoan, modu zabalean, ezagutaraztea.

4.2.3. ELKARBIZITZA

Elkarbizitza pertsona eta kolektibo guztien arteko harreman-sistema gisa ulertzen dugu, ikastolaren balioetan oinarritua, komunitateko kide guztien jokabideak modu aberasgarri eta atseginean bideratzeko aukera emango diguna, ongizate-egoera bat lortzeko. Sistema hori honako hauek osatzen dute: balioak, harremanak, autoritate- eta botere-zeinuak, arauak eta horien betetze-maila, sentimenduak, esku hartzeko esparruak, komunikazio-sistemak eta abar. Beraz, horiek dira bizikidetzak kudeatzeko kontuan hartzen ditugun oinarriak.

Elkarbizitza-planak ikastola osatzen dugun pertsona eta kolektibo guztien asmoak, sentsibiltateak eta irizpideak jasotzen saiatu behar du, eta, beraz, gurasoen, ikasleen eta profesionalen ikuspegiak eztabaidatzeko eta adosteko tresna egokia da.

Elkarbizitzaren kudeaketaren bidez, pertsona bakoitzaren garapen integralerako ingurune egokia eraiki nahi dugu, hezkuntzaren garapenerako giro egokia eta guztion arteko harreman onetarako leku aproposa, eta, horren ondorioz, ikastolako esperientzia gure ikasleentzat, gurasoentzat eta profesionalentzat oroitzapen atsegina izatea lortu nahi dugu.

Hori guztia lortzeko, urtero jartzen ditugu abian, elkarbizitza-planaz gain, tutoretza-planak (gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko), ados-tokiak (berdinen arteko gatazkak kudeatzeko), ikaskuntza kooperatiboan oinarritutako metodologiak, irakasleen elkarbizitza-taldeak, etab.



5. IRAUNALDIA

Hezkuntza-proiektu hau bost urte barru berrikusi eta eguneratuko da. Dokumentu honetan azaldutako helburuak urteko planetan zehaztuko dira, ikasturte bakoitzeko lehentasunen arabera.

Bost urte horiek igaro ondoren, berrikusiko da, eta prozesu bat irekiko da jatorrizko testua aldatzeko, gehitzeko edo ezabatzeko proposamenak jasotzeko.

Dokumentu horren berri emango zaio hezkuntza-komunitateari (familiak, klaustroa, administrazio eta zerbitzuetako langileak, eskola-kontseilua, etab.), eta emendakinak jasotzeko prozesua hasiko da. Zuzenketa horiek onartzeko edo atzera botatzeko eskumena Batzar Orokorrari dagokio, eta onartu ahal izateko beharrezkoa da parte-hartzaileen bi herenak, gutxienez, alde egotea.

Hezkuntza proiektua berresteko edo berritzeko eta testuari zuzenketak eta aldaketak egiteko prozesua zuzendaritza-taldeak irekiko du, Artezkaritza Kontseiluak onartu eta agindu ondoren. Prozesu hori gauzatzeko, behar adina lantalde, bilera eta batzorde antolatuko dira, eta beharrezkotzat jotzen diren kronogramak, dokumentuak eta abar proposatuko dira.

Azkenik, Artezkaritza Kontseiluari dagokio hezkuntza proiektua garatu eta egitea, eta zeregin hori, osorik edo zati batean, zuzendaritza-taldearen esku utzi ahal izango du. Bestetik, behin betiko dokumentua baliozkotzea eta Batzar Orokorrari aurkeztea, onartu dezan ala ez.

Azken oharra: zalantzarik izanez gero, dokumentu honen erreferentziako bertsioa euskaraz egindakoa izango da.

